



DURANGOKO UDALA

BERDINTASUN SAILAREN ZERBITZUAK



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

1. NOR GARA?

AURKEZPENA

2005ean Berdintasunerako Udal Batzordea jarri zen abian, Durangoko udalerrian berdintasun-politikak bultzatzeko helburuarekin. Ondoren, Berdintasunerako Udal Kontseilua sortzeko prozesuari ekin zitzaion. Bertan, udal ordezkariak eta mugimendu feministako kideak parte hartzen dute. Gerora, Durangoko emakumeen etxea ireki zen, **Andragunea**: emakumeon topagunea.

Gaur egun, Berdintasun Arloa Herritarren Sailari atxikitako unitatea da, eta Durangoko udalerrian emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeaz arduratzen da.

Azken urteotan aurrerapen handiak egin dira emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez. Gizarte-harremanak eta rolak asko aldatu dira. Hala ere, lan asko dago egiteko, eta, asmo horrekin, berdintasunean oinarritutako gizarte bat ahalbidetuko duten politikak bultzatzen jarraituko dugu udal-esparrutik.

Berdintasuna lortu ahal izateko, oso garrantzitsua da tokiko gobernuek genero-berdintasunaren dimentsioa erabat integratzea beren politiketan, antolaketan eta praktiketan. Horretarako, Udal honek berdintasun plan batzuk eta indarkeria matxistaren arloko koordinazio instituzionaleko protokoloak prestatu ditu.

2. HELBURUAK

1. Udaleko arlo guztiekin lankidetzan aritzea, udal-politikak planifikatu, garatu, gauzatu eta ebaluatzeko orduan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bultzatuko duten neurriak eta estrategiak proposatzeko.
2. Udal Berdintasun Plana eta indarkeria matxistaren aurkako erakundeen arteko koordinazio-protokoloa bultzatzea eta koordinatzea.
3. Berdintasun-plana eta indarkeria matxistaren protokoloaosatzen duten programetan sartutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
4. Herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak diseinatzea eta proposatzea, jarrera diskriminatzaileak saihesteko.
5. Udalari, gizarte-eragileei eta enpresei aholku ematea aukera-berdintasunaren arloan.
6. Udaleko langileei eta inplikaturako gizarte-eragileei zuzendutako berdintasun-arloko prestakuntza-planak bultzatzea.

3. ARLOKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK	AZALPENA	HARTZAILEAK	KOKALEKUA	PREZIO PUBLIKOA/TASA
- Berdintasunaren eta baliabideen arloko informazioa eta orientazioa emakumeentzat	Berdintasunarekin zerikusia duten Udalaren eta beste entitate batzuen jarduera eta zerbitzuei buruzko informazioa.	Herritarrak, oro har, eta, bereziki, emakumeak	Andragunea	Tasarik gabe
- Elkarte-mugimenduari laguntzea	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta feminismoaren arloan lan egiten duten elkarteekin harremanetan egon eta jarraipena egitea.	Mugimendu feministako eta beste elkarte batzuetako emakume militanteak	Andragunea	Tasarik gabe
- Andragunea. Emakumeen Etxea	Emakumeentzako erreferentziazko gunea udalerrian. Kontzientzia feminista, topaketa eta prestakuntza bultzatzen ditu, baita berdintasun-harremanak ere. Azken batean, emakumeek zuzenean eragiten dieten erabakietan eragina izatea da helburua, berdintasun politiketan eta gizarte eraldaketan parte hartuz.	Herritarrak, oro har, eta, bereziki, emakumeak	Andragunea	Tasarik gabe
- Emakumeak Ahalduntzeko Eskola. Ikastaroak eta tailerrak antolatzea	Ikastaroak eta tailerrak antolatzea, emakumeen egiturazko desberdintasun-egoeraz eta haien eskubide eta beharrez norbanako eta taldeko kontzientzia sortzeko.	Emakumeak	Andragunea – Kiroldegia – Udaleko entsegu lokalak	10 € 16 € 30 €
- Emakumeentzako topagunea	Emakumeen arteko harremanetarako eta esperientziak, jakintzak eta kezak partekatzeko gunea. Gainera, elkarte feministen proposamenak jaso dira. WikiEmakumeak. Literatur solasaldiak euskaraz eta gaztelaniaz. Hitzaldiak. Nordic Walking. Bularra emateko taldea eta haurdunaldiko dolua lantzeko taldea (Kulunkari elkartea).	Emakumeak	Andragunea	Tasarik gabe

- Gazteei zuzendutako indarkeria matxista prebenitzeko programa	Ikasle gazteei zuzendutako indarkeria matxistei aurea hartzeko eta haietaz jabetzeko tailerrak.	Gazteak	Ikastetxeak eta Oinarrizko Lanbide Heziketako zentroak	Tasarik gabe
- Indarkeria matxistari aurre egiteko II Protokoloa	Erakundeen arteko koordinazioa, indarkeria matxistari ematen zaion arreta hobetzeko. Herritarrei argibideak emateko giden argitalpena.	Emakumeak Herritar guztiak	Durango	Tasarik gabe
- Berdintasunerako Kontseilua	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuz udal-politikak bideratzen dituen organo aholku-emailea eta gizarte-partaidetzakoa.	Herritarrak	Durango	Tasarik gabe
- Berdintasunarekin eta indarkeriekin lotutako nazioarteko egunak	Berdintasunerako Udal Kontseiluarekin egun hauek antolatzea: martxoaren 8a, azaroaren 25a, apirilaren 26a, maiatzaren 17a eta ekainaren 28a.	Herritarrak	Durango	Tasarik gabe
- Abesti feministen lehiaketa	Gazteei zuzendutako abesti feministen lehiaketa eta azken kontzertua antolatzea. Helburua herritarrengan kontzientzia piztea da.	Herritarrak	Durango	Tasarik gabe
- Bilboko gaylesbitrans zinema eta arte eszenikoen nazioarteko jaialdia	Urtero jaialdia zabaltzeko saio bat egiten da Durangon, eta film labur ugari eskaintzen dira, herritarrak sentibilizatzeko helburuarekin.	Herritarrak	Durango	Tasarik gabe

4. HARREMANETARAKO

ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEFONO ZENBAKIA	HELBIDE ELEKTRONIKOA
Berdintasun Arloa Andragunea	Lariz Dorrea 2, 48200. Durango	94 6030042 94 4657092	berdintasuna@durango.eus andragunea@durango.eus